

B2

Erdeeraazco ipui batec...

Ez dakigu bertso-lerro hauen zenbakitzea (51, 52, 53, 54) nondik datorren, eta ez diogu loturarik aurkitzen eskuizkribuan iritsi zaizkigun beste zati batzuekin, metrikari dagokionez ahapaldi-mota berekoak diren arren B3, B4, B15 eta B17 (tertzeto endekasilaboak, -AA, -BB, -CC, -DD errimarekin).

Zenbakitze horrek eta *concluicen dot nic oneinbategaz* (B2: 7) bertso-lerroak pentsarazten dute aurretik ahapaldi asko galdu direla (berrogeita hamar), baina litekeena da poemaren bukaera hain zuzen hemen izatea: idazleak bere esperientziatik hitz eginez aholkatzen du maitemintzeko eta andrazkoekin harremana izateko.

<1151r> [...]

51

Erdeeraazco¹ ipui² batec

“La bieja escarmentada” berba³

lebela “regaçada pasó el río”.⁴

¹ *Erdeeraazco*: Hitz honetan bi bokal bikoitz ditugu, metrikak ez baitu zalantzarako tarterik uzten (bertso-lerro guztiak dira endekasilaboak). *-ee-* denaz bezainbatean, ez da adibide konparagarririk testu osoan: hemen konposaketa fenomenoaren ondorengoa da bokal bikoitza. *OEH*ren arabera, Fray Bartolomek ere badarabil *erdeera* forma; gogoan izan, bestalde, antzeko konposizioa erakusten dutela bestela dokumentatutako *galdeera* bezalako formek. *-aa-* bokal bikoitzari dagokionez, ordea, ezin izan dugu azalpen beterik aurkitu: pentsa liteke artikulua dela tartean, baina ez da beste adibiderik testu osoan *-azko* forma erakusten duenik; hots, ez da *-eazko*, *-iazko*, *-oazko*, *-uazko* formarik. *-a-*rik gabekoak dira denak: *utra birtute andizcoa* (AL: 1141r); *amozco erregue jauna* (AL: 1551r), *Enojuzco verva oec* (AL: 1152v). Instrumentaleko *-az* forma, aldiz, erraz topatzen da: *utra boz amorosoaz* (AL: 1140r), *ain furia andiaz* (AL: 1142r), *eguin eusan promeseaz* (AL: 1142v).

² *ipui*: ‘atsotitz’ esan nahi du, dirudienez; esanahi hori izan lezake A23: 6 bertso-lerroko *ipuiçar* formak ere. Edozelan ere, bietan dago *-n* gabeko forma; halakoetan Lazarragak *-n* gabeko formak erabiltzen ditu beti: *arçai* (*passim*), *seychoa* (A25: 53), *sei* (B3: 13, B21: 62), *ipuiçarric* (A23: 6), *ipui* (B2: 2), *array* (A25: 53) eta *arraitan* B2: 12). Landuccik ere *-n* gabeko formak bildu zituen: “ovejero, pastor, arçaya”; “niño, segui mutila”; “peçe, pescado, arraya”.

³ *berba*: Ez dakigu zehazki zein zen bertso-lerroaren amaiera, baina bertsomoldeak errima eskatzen du hurrengo lerroarekin, eta ziur aski eskuizkribuan zerbait galdu da *berba-* horren ondoren. Leku askorik ez dagoen arren, hamaika silaba osatzeko, *-ie-* eta *-a es-* silaba bakarretan kontatuz gero, beste bi silaba izango lirarteke. Baina ez dugu uste *berbario lebela* edo *berbaro lebela* egokiak izan litezkeenik. Landuccik *berbari* dakar, eta Añibarrok *berba-erio*, *berba-jario*, denak “parlanchin” edo esanahiarekin. Edozelan ere, ez dugu ikusten “berba[] lebela” zelan azter litekeen, esanahia argi dagoen arren: “erdarazko atsotitz batek hau dio, eta, horren antzera, nik ere...”.

52

Nic bere, Jaun orrec⁵ ala guraric,
 probadu dot mina⁶ eta dulcea; 5
 bietan busti da ene ulcea.⁷

53

Concluicen dot nic oneinbategaz.⁸
 Iñor içango bada avisadu,
 bear dau forçoso enamoradu.⁹

⁴ “*La bieja escarmentada [...] regaçada pasó el río*”: Lazarragaren garaitsuko bi atsotitz-bildumatan aurkitu dugu “Vieja escarmentada arregaçada passa el agua” atsotitza: Pedro Vallés (*Libro de refranes y sentencias*, 1549) eta Hernán Núñez (*Refranes o proverbios en romance*, c. 1549). Beste aldaera batzuetan, “pasa el río” edo “pasa el vado” agertzen da. Argigarria da Covarrubiasen *Tesoroko* azalpena, s.v. *arregazar*: “Dize un proverbio: *Vieja escarmentada, passa el vado arregazada*. En las aldeas, quando passan algún arroyo o vado las mugeres moças, por la honestidad no alcan las faldas, y quando salen del agua hállanse mojadas, y con el agua pésales más el vestido y estórvaes el caminar; la vieja, visto el inconveniente, procura passar sin mojarse. Aplícase a los que teniendo experiencia de las cosas se acomodan con lo que les es más a propósito”.

⁵ *Jaun orrec*: Eskuizkribuak espreski bereizten ditu sintagmaren bi elementuak; beste bi kasutan, baina, *jaunorrec* batuta eskaini dugu (A17: 65 eta A26: 34), eskuizkribuak dakarren bezala.

⁶ *mina*: ‘mikatza, mingotsa’. Cf. Lcc “amargo, *mina*”.

⁷ *bietan busti da ene ulcea*: Ez dugu aurkitu esamoldea beste inon, ez euskaraz ez gaztelania zaharrean, baina esan nahi duena argi dago: aipaturiko atsotizetako atsoek bezala, berak ere esperientzia handia du, onak eta txarrak bizi izan dituelako.
ulcea: ‘iltzea’. Cf. *OEH* s.v.: “En textos guipuzcoanos se documenta la forma *iltze* y en vizcaínos *ultze* y *untze* (ésta última es la única empleada por autores modernos y con alternancia de ambas formas en Moguel)”.

⁸ *Concluicen dot nic oneinbategaz*: Esaldi berbera dago B5: 87 bertso-lerroan: *Concluicen dot oneinbategaz*.

oneinbategaz: Erakuslean oinarrituriko forma hauek hiru graduatan agertzen dira eskuizkribuan, batzuetan monoptongaturik eta beste batzuetan monoptongatu gabe: *oneinbat/oninbat*, *orribat*, *aynbat/ainbat*. Cf. *oneinbat* (AL: 1152v, A3: 23, B3: 51), *oneinbategaz* (B2: 7, B5: 87), *oneinbatenaz* (A24: 9), baina *oninbatenaz* (A23: 33 eta 85); *orribat* (A26: 70); eta *ainbat/aynbat* (*passim*); monoptongazio horien antzekoa da orobat *cinbat* (A26: 79).

⁹ *Iñor içango bada avisadu, / bear dau forçoso enamoradu*: XVI. mendeko testuetan, “-tuko + izan / **edun*” perifrasi oso gutxitan agertzen zaigu baldintza errealeko protasian. Lazarragarenean eta *RS*en aurkitzen dugu geroko prozesu baten adierazteko, apodosiak agindu bat adierazten duela: *Jentil hombre oyta bear dau, / içango badau dicharic* (A14: 51-52), *Laztanagana joango bada ce beraoque lagunic* (A14: 90), *çJure minez ilgo banaiz, / laudatu Jaun Cerucoa* (B28: 19-20), *Emongo badeustaçu luçatu çe eguidaçu* (*RS* 490). Bestalde, gaur egun bezala, *behar izan* aditz-lokuzioaren osagarri bezala erabiltzen da helburuaren adierazteko. Erabilera hori bera dugu pasarte honetan. Ohar gaitezenez Lazarraga eta Zalgize erabilera horren berri ematen duten lehen autoreak direla: *Jentil hombre oyta bear*

Guiçon damaogaz¹⁰ eztaucana
 conbersacioa¹¹ gusto anditan,¹²
 bioa porra batez arraitan.¹³

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Testu nagusiko bertso-lerroen eskuinetara idatzita daude lau ahapaldi hauek. Gainetik lau marra eginez ezabatu direla dirudi. **2** berba-] ondorengo tinta-mantxaz estalita dago. **3** lebela] aurrean ezabatuta *la*. **11** gusto] ez da irakurketa paleografikoki ziurra; *guea* ere irakur liteke.

dau, / içango badau dicharic (A14: 51-52), *Iñor içango bada avisadu, / bear dau forçoso enamoradu* (B2: 8-9); *hitzez berceric behar da / haurrac haciren badira* (Zalg 66).

avisadu: ‘zuhur’; cf. *DAut*, s.v. *avisado*: “Vale también advertido, discreto, sabio y capaz”. Cf. *neure bician ecusi ez dot / ayn gauça abisadurik* (A7: 9-10) eta *Abisada eder parebaguea* (B15: 16).

¹⁰ *damaogaz*: ‘damaokaz, damaokin’; eskuizkribuan bitan aurkitu dugu *-ogaz* sozietibo plurala: *escuogaz* (A17: 64) eta *damaogaz* (B2: 10); eta hiru aldiz *-egaz* sozietibo plurala: *çuegaz* (A10: 27), *oegaz* (A26: 87), *oriegaz* (B5: 103). Plurala da orobat *baçugaz*: *urregorritzco letra baçugaz / egoan escreviduric* (A1: 11-12), *Egun batean leucala / beste baçugaz cabildu, / aen artera içan ninçan / exil-exilic coladu* (B12: 45-48), *baçugaz consultaduric* (B21: 22). Horien ondoan, bada *-ocaz/-ocaç* ere: *delicaduocaz* (AL: 1138r), *berbaocaç* (AL: 1151v), *beguiocaz* (AL: 1152v), *biciocaz* (AL: 1154v); eta *-equin*: *oequin* (A11: 2), *matalotequin* (B30: 5).

¹¹ *conbersacioa*: ‘harremana’; harremanik azalekoena nahiz sakonena adieraz lezake. Cf. *DAut* s.v. *conversación*: “Vale también trato, comunicación y comercio recíproco y familiar de unos y otros entre sí. [...] Se toma también por trato y comunicación ilícita o amancebamiento”.

¹² *gusto anditan*: ‘atsegin handiz’.

¹³ *bioa porra batez arraitan*: Porra batez arraitan joatea aipatzen da gauza zail gisa, “bihoa antzarrak perratzera” esango bagenu bezala. Gaztelaniaz bada hori berori biltzen duen errefracua: “No es renta cierta pescar con maço” (Pedro Vallés-en *Libro de Refranes y sentencias*, 1549, 2701. errefr., *apud CORDE*).

arraitan: ‘arraitetan’; *-n* gabeko formez, ikusi B2: 1 bertso-lerroko oharra.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B2 – Erdeeraazco ipui batec...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago